

## GIG 12

## SAKONETAKO KAREKIZKO FLYSCHA

BALIO INTRINTSEKOA: **3,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,25**KALTEBERATASUN-MAILA: **1**

## GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Sakonetakoa hondartzan, Itziar formazioko ebakidura ikusgarri bat bereizten da, Goi Kretazeoko hasierako (Cenomaniar, Turoniar, Coniaciar eta Santoniarreko) karekizko flyscharen adierazgarria.

Segida Andutzeko failan hasten da eta 700 m inguruko lodiera du. Kareharrizko eta tupazko estratu dezimetrokoz osatuta dago, eta turbidita txikiak ditu tartekatuta. Formazio horrek lasaitasun tektonikoko eta itsas transgresioeko periodo luze baten hasiera markatzen du; periodo horretan, itsas hondo lasai eta sakon bihurtu zen inguru hori, eta tupen eta kareharri tupatsuen nahiz turbidita gutxi batzuen sedimentazio hemipelagikoa izan zen nagusi.

Segida, halaber, aztarna fosilen museo natural bat da. *Chondrites* eta *Subphyllochora* izeneko adibide deigarriak nahiko garbi bereizten dira, eta *Rotundusichnium zumayensis* bereziki azpimarratu behar da, oso bitxia delako eta bertan definitu zelako lehen aldiz. Joaquín Gómez de Llarenak definitu zuen azken hori, honela: milimetro gutxi batzuetako zabalera duen lortatz helikoidal bat da, oso bira estuetan bilduta, eta birek 40 cm-rainoko diametroko espira bat osatzen dute.

## NOLA BERTARATU

15 minutu inguru oinez eginda erraz iristen da Sakonetako hondartzara Errota Berri atsedeneku eta landa-etxetik, bai eta Mendatagainako begiratokitik ere. Errota Berrira joateko, N-634 errepidean bertarako bidea hartu behar da Itziar eta Zumaia artean; eta begiratokira iristeko, berriz, Itxaspe kanpina joateko bidea hartu behar da, Itziar gainean.

## GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

*In situ.*



Sakonetakoa karekizko flyscharen segidaren ikuspegi orokorra.



**UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):**

X= 555816 m / Y= 4793995 m / Alt.= 2 m



*Rotundusichnium zumayensis*, gertutik ikusita.